

KOMIKI-ALBUMA

EuSKLABO ALAIK parodia satirikoa da: ez du deus asmatzen, agerikoa nabarmendu egiten du. Honetakoan baina, karikatura **guk geuk** diogu egin geure buruari.

Umorezko terapiari esker autoestima ere landu dugu,
eta amaiera zoriontsua proposatu.

Argia hurbildu nahi izan diogu bidegabekeriari, semiotika-ministerioetatik heldu den kontzeptu prefabrikatuen zaparradaren erdian.
Eta azkenik, garaile izan diren bost kontinenteetako oihartzunak bildu ditugu, bat baino gehiago guhauren aurka ere garaile.

Intzura Handian kokatu dugu egintza, Euskal Herriaren erdiguneko ibaiaren bokale aldeko irlan. **Defoeren** pertsonaiak bertan paratu ditugu:

RobinSon CruSoe nagusitu egin da irlaz, eta birbataiatu
Faisan(e)s Island.

Ostiral: Crusoeren araberako izena. Barne-bidaia egingen du, erabateko menerakuntzatik liberaziorainokoa.

Izarkin: zinezko izena **izarki** aditz zaharretik dator: llintia errautsez estali, konbustio apaleko sua bizirik atxikitzeko.

Hauei beste pertsonaia zenbait gehitu dizkiegu, geuk asmatuikoak:

Hazurbaltz: Afrikar esklaboen ondorengo. Ostiral-Izarkini ikusaraziko dio zein sumisio patologikotan bizi den, ohartu ere egin gabe.

Hazurbaltz erraten zieten euskaldunek espainiar langileei, industrializazioetan etorkin.

Beste hainbat pertsonaia sekundario dira **Pantzo**, **Orinoko**, **Mantxurriana** eta **Zantzibar**.

Albumaren izenak opera batena erre kreatzen du: « **Esklabo Zoriontsuak** », kataluniar batek idatziriko eta bi euskal herritarrek musikaturikoa.

EGILEA

AsisKo – Iruñea 1965

Komikilaria, nazioartean saritua hainbatetan:

Kuban (Palma Real, 1991),
korsiKan (Prix Méditerranée, 2003 eta Elkargoaren Domina, 2009),
Australian eta Frantzia (Publikoaren Lehen Sariak, 2013),
haren albumak eta animazio-filmeengatik,
bakarka zein kolektiboan eginak.

2017ko urri honetan Euskal Herriko Lehenengo Sormen-Saria irabazi berri du, « Artista plastiko modura duen kalitateagatik, Euskararekin duen engaiamenduagatik eta kultur eragile modura egindako lanagatik ».

SoLASALDIA

« EuskLABO ALAIK »

Bakarrizketa ilustratuan, AsisKok kuestionatu egingen du hainbat ustekeria;
umorea, marrazkia eta duda metodikoa lagun:

Euskal Herria, **txipia**?
Euskara hizkuntza **zaharrena** dea?
Estaturik **gabeko** nazioa al gara?
zazpiak bat? **irurac** bat? **Bat** ere ez?